

MERKATUAREN SEGMENTAZIOA

Gure aplikazioak helburutzat hartu dituen **talde desberdinetako beharrak eta nahiak** aztertu ditugu. Jarraian, segmentu nagusiak deskribatzen ditugu, bakoitzari balio erantsia eskainiz eta haien beharretara egokituz.

Arosto enpresak eskaintzen dituen zerbitzuak **anitzak** dira, beraz, gure bezeroak ere horrelakoak izango lirateke; familientzat, bakarrik bizi diren pertsonentzat, kirola maite dutenentzat, eta janari zerbitzuak behar dituztenentzat, alegia. Ekintzak bezeroen **ezaugarrietara egokitutakoak** izango dira, horrek merkatu handiago batera heltzeko aukera ematen baitigu. Egunean zehar, antolaketa arazoak edota ordutegiak medio, **janaria prestatzeko arazoak** dituzten familientzako zerbitzua ere eskuragarri dago. Beraz, ezaugarri hauek betetzen dituzten pertsonak ere gure bezero potentzialak izan daitezke.



Alde batetik, familia eta gurasoen kasuan, **pantailarekiko mendekotasuna murriztu** nahi dutenak erabiliko lukete gure aplikazioa. Maitatzen dituzten pertsonekin **kalitatezko denbora** pasatzeko gogoia dutenak osatzen dute gure aplikazioaren erabiltzaile-talde garrantzitsu bat. Familiek eta gurasoek beren seme-alaben **osasuna eta ongizatea** lehenesten dute, bereziki teknologiaren erabilera murriztuz eta kalitatezko denbora partekatuz.

Beste alde batetik, beraien **bakardadea arintzea** bilatzen duten pertsonak izango genituzke. Hauek gure proiektuaren oinarritzko publikoetako bat dira, Euskal Herrian bakarrik bizi diren 300.000 pertsonetako parte izanik. Horiek sozializatzeko eta konektatzeko aukerak behar dituzte, eta horretarako **aktibitate fisiko eta mentalak** sustatuko ditugu, baita **aisialdi- eta komunitate-jarduerak** ere. Gure helburua komunitate indartsu bat sortzea da, non bakarrik bizi diren pertsonak laguntza eta konpainia aurkituko duten, bakardade-tasa nabarmen murriztuz.



Hurreko bietaz gain, **kirol jarduerak eta aktibitate fisikoak maite dituzten pertsonak** izango genituzke bezero bezala. Hauek diziiplina desberdinetan **esperientzia berriak** bizitzeko interesa dute. Jarduera fisiko eta sozialak, kirol-esperientzia berriak, taldeko jarduerak eta harreman berriak sortzeko aukerak bilatzen dituzte. Segmentu hau Euskal Herrian kirola modu **aktibo** eta **aberasgarrian** praktikatzea nahi

duten pertsonentzat diseinatu dago, komunitate eta elkartasun giroan jarduera fisiko anitzak eskainiz. Ingurune lagunkoia eta inspiratzailea sortuko dugu, non kirolari eta aktibitate fisikoari buruzko pasioa partekatzen duten pertsonak elkarrekin goza dezaketen.

Gainera, **eguneroko janari-zerbitzuak behar dituzten pertsonak** ere gure bezero potentzialak dira, familiak, pertsona nagusiak eta lanpetutako langileak barne hartuz. Haien beharrak eguneroko janari-prestaketa eta elikadura kudeaketa erraztea dira, eta helburua da **denbora aurrezte**a eta **baliabideak optimizatzea**, dieta osasuntsu eta orekatua bermatuz. Zerbitzua menu-planifikazio eta **janari-prestaketa errazte**i eta **azkarre**i zuzenduta dago. Helburua **bizitza erraztea** eta **ongizatea hobetzea** da, denbora libre gehiago uzteko eta estresa murrizteko.



Azkenik, **aisialdi osasuntsu** eta **hezigarria** bilatzen duten gazteak daude. Erabiltzaile hauek, bereziki, **pantailarik gabeko** esperientziak eta aisialdi hezigarria bilatzen dituzte, non gazteek modu aktiboan parte hartu eta elkarrekin goza dezaketen. Gure helburua da parte-hartzaileei aisialdi hezigarri, osasuntsu eta esanguratsua eskaintzea, non gazteek eta familiek **esperientzia baliotsuak** bizi eta beren **trebetasun sozial eta pertsonalak garatzeko** aukera izango duten.

Aplikazioak izan ditzakeen 800.000 bezero potentzialen artean, **familiak, bakarrik bizi direnak eta kirolzaleak** daude. Teknologia eta pantailarekiko harremana hobetzeko zerbitzua eskaintzen denez, erabiltzaile asko erakartzeko potentzial handia dauka, bereziki **aisialdirako eskaintza anitza** eta **bakardadea murrizteko** aukera eskainiz.

Aurreko guztia kontuan hartuta, ondorioztatu dezakeguna zera da: gure enpresaren **merkatu** mota **segmentatua** da, hau da, gure bezeroak beraien **ezaugarrien arabera** taldekatu egiten ditugu, ekintzak eta zerbitzuak pertsonari ahalik eta hoberen egokitzeko.